

UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEKO JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOKO IKASLEAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK, HAREN ZUZENDARITZAK 2017ko IRAILAREN 6an ONARTUTA

Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren (aurrerantzean JSKJ edo Klinika) eginkizun nagusia da Zuzenbide eta Kriminologiako 4. mailako ikasleek, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko 5. mailako ikasleek eta Abokatutza eta Prokuradoretza Unibertsitateko Masterreko lehen mailako ikasleek beren praktikak, GRALa eta MALa bideratzea Euskal Herriko errealitate sozialeko kasu eta arazoen gainean islatutako pedagogia eta praktika klinikoen bidez. Eginkizun konplexua denez, ikastegiz kanpoko gizarte eragile eta profesionalek hartu behar dute parte, eta, batez ere, pertsona horien eskuragarritasuna mugatua denez, ikasturtetik ikasturtera zehaztu behar da ikasleei eskaini beharreko plaza kopurua. Horiek horrela, eskaera kopurua dauden plazena baino handiagoa bada, ikasleak hautatzeko irizpide eta baremo hauek erabiliko ditugu, betiere 10eko puntuazioari helduta:

1. **Espediente akademikoa (% 50 gehienez).** Zenbaketarako, kalkulatu da zein izan den espediente akademikoaren batez besteko nota. Gehieneko batez besteko notari 5 puntu emango zaizkio, eta hortik aurrera esleipen proportzionala egingo da gainerako eskaeretarako, horien batez besteko notak kontuan hartuta.
2. **Prestakuntza Osagarria (% 20 gehienez).** Prestakuntza osagarriaren barruan, hauen artean bereziko da:
 - a. Unibertsitateko tituluak edo graduak: % 10 gehienez.
 - b. Graduondokoak: % 5 gehienez.
 - c. Klinikaren helburuekin lotutako ikastaro, tailer edo mintegiak: % 5 gehienez. Atal honetan sartuko dira Praktikak eta GRALak.
3. **Esperientzia profesionala eta/edo elkarteen sarean izandako parte hartzea, baldin eta Klinikaren helburuekin zerikusia badute (% 20 gehienez).**
4. **Elkarritzeta (% 10 gehienez).** Elkarritzeta irailaren 29an izango da aurrez aurre edo online. Ikasleei zuzenean jakinaraziko zaie lekua eta ordua.

Alegatutako merezimenduak justifikatzeko, eskaerari erantsi beharko zaizkio jatorrizko agiri eskaneatuak.

Klinikako zuzendaritzak hautatuko ditu ikasleak, Zentroko titulazioen eta Kampus desberdinetako arteko oreka errespetatuz. Hautaketa prozesu ondoren onartuen zerrenda argitaratuko da.